- Airearen garrantziaz jabetzea.
- Airearen berotzearen garrantzia doala ohartu eta egiaztatzea.
- Airearen energia mota bat dela konturatzeko.


MATERIALAK

- ◆ Soberan dugun koloreetako papera edo kartulinak.
- ◆ Artaziak.
- ◆ Arkatza.
- ◆ Bi pegatina borobil begiak egiteko eta beste bat trianguluduna mingaina egiteko.
- ◆ Haria eta zela.


Nola egin sugea



1. Lehenengoz, marraztu sugea paper karratu batean (irudiak adierazten duen bezalaxe).




2. Animalia moztutakoan, itsatsi buruan begiak zein mingaina.



3. Zulatu sugearen burua eta pasa hari bat beheko aldetik gora.



4. Erantsi zeloz sugearen buruan hari zati bat.



Nola dantzatuko du gure sugeak?

Ikasgelako berogailuek airea berotzen dute. Berotasunak airea gorantz joanarazten du, eta horrek mugituko du sugea. Kolore edo diseinu diferenteetako sugeak berogailuen gainean jarri gero, dantza polit bat lortuko dugu.



Ikus dezagun geure ingurua

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- LENGOAIA.
- HIZKUNTZA.

HELBURUAK

- Airearen kutsadura-iturri nagusiak identifikatzea.
- Inguru osasungarri eta garbi batean bizitzearen garrantziaz jabetzea.

MATERIALA

- ◆ Koloreetako margoak.

Ariketaren prozedura

Lehenengo eta behin, begiratu ondo marrazkiari; gero, margotu nahi duzun bezala. Bigarrenez, erantzun hurrengo galderai:

- Marrazkiko zein elementuk sortzen dute kea? Marka itzazu borobil gorri batez.
- Keak eragozten gaitu, zergaitik?
- Zeure etxe edo eskolako zerk sortzen du kea?, molestatu egiten zaitu?
- Eta txoriei eragozten diela uste al duzu?
- Bilatu marrazkian, zure ustez, hobe daitezkeen elementuak eta jokaerak.



Margo ditzagun ke kaltegarriak

Gai honekin zerikusia duten arloak


- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- LENGOAIA.
- HIZKUNTZA.

HELBURUA

- Neska-mutilen inguru hurbileneko airearen kutsadura-iturri nagusiei antzematea.

Ariketa pausoz pauso

1. Fitxa honetan agertzen zaizun maparen orde, zeuen ikastetxea dagoen auzoko planoak fotokopiatu.
2. Molda itzazue kolore-ikurrak inguru horren ezau-garrietara, esate baterako:
 - Trafikoak sorturiko keak: beltza
 - Obrek sortutakoak: grisa.
 - Lantegiek sortzen dituztenak: urdina.
 - Gauzak erretzean sortutakoak: marroia.
3. Kokatu planoan kea sortzen duten jarduerak (erai-kuntzak, zirkulazioa, lantegiak...) eta margotu bakoitza dagokion koloreaz.
4. Azkenik, planoan adierazi duzuenaz azaltzen saia zaitezte.





Zer igortzen dugu airera?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.

HELBURUAK

- Airera botatzen ditugun zenbait substantzia identifikatzea.
- Jasotako informazioa bildu eta ordenatzea.


MATERIALAK

- ◆ Plastiko itsasgarrizko zerrendak (aerofix, cello...).
- ◆ Paper milimetratua.
- ◆ Lupa.


EKINTZA HONETAN, airearen partikula solidoak toki desberdinetan aztertuko ditugu, adibidez:

- Eskolako aparkalekuan (edo zure etxeko garajea).
- Eskolako patioan (edo trafikorik gabeko toki batean).
- Eskolako gelako leiho batean (edo tximinia batetik hurbil dagoen lekuren batean).


Eman beharreko urratsak



1. Moztu plastiko itsasgarrizko zerrenda batzuk (3x6 cm).



2. Kendu babes-papera eta ipini alde itsasgarria aztertu nahi ditugun toki azalera desberdinen gainean, eskuaz presioa eginez.



3. Askatu eta partikula txikiak itsatsirik geratu direla ikusiko duzu. Itsatsi zerrenda paper milimetratuaren gainean.



4. Luparen laguntzaz, mota eta tamaina diferentetako partikulak ikusi eta azter ditzakegu.

Emaitzak ondorengo taulan bil daitezke:

	Lekua	Partikula motak: kea, hautsa...	Tamaina: milimetrotan	Kopurua: gutxi, asko...
1. lagina				
2. lagina				
3. lagina				

Lortutako emaitzei begira:

- Zeintzuk dira airera botatzen ditugun partikula solidoak?
- Non daude ugarienak?
- Begi bistakoak al dira?



Zu ere kutsatzaile?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- TEKNOLOGIA.

HELBURUAK

- Eguneroko energia-erabileren ondorioz, aldaketa klimatikoan eragin handiena duen karbono dioxido gasaren ekoizpena kalkulatzeko.
- Hori murrizteko neurriak hartzen laguntzea.

Ariketaren prozedura

Zure familiak urtebetean zenbat CO₂ ekoizten duen kalkulatu ahal izateko, eskuineko taula osatzea proposatzen dizugu.

Bestalde, etxeko automobilak sortutako CO₂ kopurua zehatzago kalkulatzeko behaldekotaulaz baliatuko zarete. Taularen lehen zutabeetan automobil desberdinek litro bat erregairekin egin ditzaketen kilometro kopuruak daude. Lehendabizi, bilatu 1. zutabeetan zuen automobilaren kasura gehien hurbiltzen den kopurua. Gero, bila ezazue 1. lerro horizontalean zuen automobilak urtean egiten duen kilometro kopurura gehien hurbiltzen den zenbakia. Kontsumoa adierazten duen lerroa eta urtean egindako kilometroen zutabea elkar gurutzatzen diren lekuko zenbakiak zuen automobilak urtean gutxi gorabehera zenbat CO₂ ekoizten duen adieraziko dizue.

CO₂ jaulkipenak

Errekuntza/jarduera	Erabilitako unitatea	Zenbat CO ₂ unitateko	Urteko jaulkipenak (kg)
Elektrizitatea	kw.h	0,41 kg/kw.h	
Gasolina/gasolioa	litro	2,6 kg/litro	
Gas naturala	m ³	1,7 kg/m ³	
GLP (propanoa, butanoa)	kg	2,7 kg/kg	
Automobila	litro	2,6 kg/litro	
GLP-z dabilen autoa	litro	1,5 kg/litro	
Hegazkina	km	0,25 kg/km	
Hiriko autobusa	km	0,06 kg/km	
Hiri arteko autobusa	km	0,05 kg/km	
Trena edo metroa	km	0,03 kg/km	
Taxia	km	0,4 kg/km	
Zaborra	kg	3 kg/kg	

JAILKIPENAK GUZTIRA

Kotxez bidaiatzen sortzen ditugun CO₂ kilogramoak

zenbat km litroko	URTEAN ZEHAR EGINDAKO KILOMETRO KOPURUA							
	5.000	10.000	15.000	20.000	25.000	30.000	35.000	40.000
4	3.250	6.500	9.740	13.000	16.250	19.500	22.750	26.000
6	2.170	4.340	6.500	8.690	11.050	13.000	15.200	17.400
8	1.620	3.250	4.900	6.500	8.140	9.750	11.400	13.000
10	1.300	2.600	3.900	5.200	6.500	7.800	9.100	10.400
12	1.080	2.170	3.250	4.340	5.520	6.500	7.600	8.700
14	926	1.850	2.780	3.720	4.620	5.560	6.500	7.440
16	810	1.620	2.440	3.250	4.060	4.860	5.690	6.500
18	722	1.450	2.160	2.890	3.620	4.340	4.990	5.770
20	650	1.300	1.950	2.600	3.250	3.900	4.550	5.200
22	590	1.180	1.770	2.360	2.910	3.560	4.130	4.730

■ Zer iruditzen zaizue lortutako CO₂ kopurua?

■ Uste duzue zerbaitegin beharko zenuketela kopuru hori murrizteko? Zer egin daiteke?



Airearen kalitatea

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZA.
- TUTORETZA.

HELBURUAK

- Ingurumen-adierazleak aztertzeko oinarritzko ezagutzak barneratzea.
- Aire parametroaren oraingo egoera ezagutzea.

MATERIALA

- ◆ **Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. Ingurumen adierazleak 2002** argitalpena. IHOBE, 2002.



ONDOREN ESKAINTZEN dizkizuegun hamar baieztapenetatik, esan —zeuen iritzian oinarrituz eta laguntzarik gabe— zein diren egia eta zein gezurra. Gero, *Ingurumen Adierazleak* izenburuko liburuan kontsultatu ahalko duzue, zein asmatu dituzuen ikusteko.



- | | Egia / Gezurra |
|--|----------------|
| 1. 1996tik hona, airearen kalitatea nabarmenki hobetu da, SO ₂ ari (sufre dioxidoari) dagokionez. | ● ● |
| 2. NO ₂ isurpenei buruzko oraingo datuak aintzat hartuta, 2010erako zehaztutako helburuak erraz lortuko dira. | ● ● |
| 3. Atmosferaren kutsaduraren eragile nagusiak erregai fosilen kontsumoa, garraioa eta nekazaritza dira. | ● ● |
| 4. Ozonoa (O ₃) osasunari kalte egiten dion oxidatzailea da. | ● ● |
| 5. Berotegi efektua eragiten duten gasen (BEG) isurpenek erakusten duten joera ez da txarra. | ● ● |
| 6. BEG garrantzitsuenak karbono dioxidoa (CO ₂), metanoa (CH ₄) eta oxido nitrosoa (N ₂ O) dira. | ● ● |
| 7. Sektore ekonomiko guztietan energiaren aurrezpena sustatzeak ez du BEGak urritzen laguntzen. | ● ● |
| 8. Hirietako airearen kalitatea txarto egin da duela 5 urtetik hona. | ● ● |
| 9. Hirietatik hurbil dauden industriak eta eguraldia dira hiriko kutsadura atmosferikoaren errudun bakarrak. | ● ● |
| 10. Azken urteetan, NO ₂ ren kontzentrazioak bilakaera ezberdina izan du Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetakoko bakoitzean. | ● ● |

Erantzunak:

1. E (27. or.), 2. G (32. or.), 3. E (30. or.), 4. E (30. or.), 5. G (56. or.), 6. E (57. or.), 7. G (57. or.), 8. G (69. or.), 9. G (69. or.), 10. E (69. or.).



Atmosfera, egoera hobezinean, edozein aldaketatara moldatzeko gai da. Lurreko izaki bizidunak gaitasun horren menpe daude (bestela bizia ezinezkoa litzateke eta). Hala ere, zamari eusteko gaitasun hori ez da mugagabea eta, gizakiok horrela ustiatzeko segituz gero, atmosferari eragindako zauriak konpondu ezinak izango dira laster.



Zerk sortzen du hiriko kutsadura atmosferikoa?

HELBURUAK

- Hiriko airearen kalitatearekin zerikusia duten alderdiei buruzko gogoeta egitea.
- Kutsagarriek hirian barreiatzeko behar dituzten baldintzak ikertzea.

ATMOSFERA LITOSFERA eta hidrosfera inguratzen dituen gazezko geruza da eta, gutxi gorabehera, 10.000 km-ko lodiera du. Atmosfera, gasek ez ezik, Lurraren grabitateak erakarri eta esekita dauden partikula solidoek eta likidoek ere osatzen dute. Planeta jotzen duten fenomeno kli-

matiko eta meteorologiko guztiak atmosferan gertatzen dira; horrez gain, atmosferak Lurrera sartzen den eta bertatik irteten den energia erregulatzen du, eta beroa hedatzeko bide nagusia da.

Hiriko kutsadura atmosferikoa bertara isurtzen diren kutsagarrien eta kutsaduraren barreiatze-gaitasunaren araberakoa da.

Ariketa honetan, aukeratutako hiriaren ezaugarri atmosferikoetan eragina duten alderdiak aztertuko dituzue.

a) Alderdi fisiko eta geografikoak

Hasteko, munduko mapa fisikoan lekutu behar duzue zeuen hiria. Ondoren, hiriaren eta bere inguruaren ezaugarri garrantzitsuenak aztertuko dituzue.

1. Lekutu hiria dagokion latitudean, eta aztertu atmosferako zirkulazio orokorra, presio gunek eta planetako haize nagusiak hautemateko.
2. Aztertu inguruko tenperaturaren inbertsio-aukerak.
3. Mapa topografikoan, aurkitu airearen zirkulazioa —bideratuz edo geraraziz— erabakitzen duten haranak eta mendikateak.



4. Planoan, zaila da hiriko bero-uharteei antzematea, baina airetik edo satelitetik egindako argazkia edo hiriaren azalpen-planoa aurkitzen baduzue, eraikinik altuenak, merkataritza-guneak, industrialdeak eta bizitegiak, behintzat, erraz lekutu ahalko dituzue. Informazio hori erabiliz, hiriaren barruko zirkulazioari buruzko teoriak planteatzen saia zaitezke.
5. Hiriaren planoan, aurkitu berdegunerik zabalenak eta zenbatetsi hiriaren arbolaztatze-maila; landaredi-maparen laguntzaz, zehaztu hiri-inguruetan dauden eta airea garbitzen lagunduan ahal duten landare-elkartzak.

b) Alderdi geografiko eta kulturalak

Alderdi geografikoen eta antropikoen (biztanleriaren banaketak, eraikinen formak eta kontzentrazioak, garraioak...) eragin handia dute airearen kutsaduran. Gai hori lantzeko, bilatu zuen hiriko plano xehatuak (airetik egindako argazkiak edo satelite-irudiak dira onenak) eta populazioari buruzko estatistika sozialak eta ekonomikoak. Honako aldagai hauek aztertuko dituzue:

1. Zenbatekoa da populazio-bolumena? Nola banatzen da populazioa auzoetan? Izaten da gorabeherarik, urte-garaiaren arabera?
2. Planoan edo argazkian, lekutu

eraikin altuen bilgunea, auzo edo gizarte-etxeak, merkataritza-aldeak, industrialdeak, bizitegi-aldeak eta bide-sarearen bilbea.

3. Bildu ibilgailuei eta garraio-bideei buruzko informazioa; adibidez, zenbat hegazkin, autobus eta abar heltzen diren orduro.
4. Zelako ohiturak dituzte hiriko biztanleek, eguneroko joan-etorriei eta distantziei dagokienez?
5. Bilatu hiriaren kanpoaldeko jarduerarik garrantzitsuenak eta lurzoruaren erabilerari buruzko informazioa, eta hiriaren eta bere inguruen arteko loturak. Informazio horrekin, zehaztu landa-desplazamenduak, eta nekazaritzak edo industriak eragindako isurpen kutsagarriak.

Hiriko smog deritzona eragiten duten faktore naturalak

Hiria	Latitudea	Altitudea
Haize nagusiak	Temperaturaren inbertsioa	Topografia
Mendikateak	Zonako landare-estalkia	Ibarrak
Eraikuntzaren dentsitatea		

Faktore antropikoak

Hiriaren tamaina	Hiriaren forma	Bizitegi-aldeak
Garraio-biderik erabilienak	Hiriko bero-uhartek	Industrialdeak
Desplazamenduak	Ibilgailuak	Parkeak

Egin hiriaren eskema eta erabaki zein diren kutsaduran eragin handiena duten parametroak.

Bilatu zuen hiriko kutsadura kontrolatzeko, aurrea hartzeko eta garbitzeko xedatuko diren edo

abian jarri diren neurriei buruzko informazioa.

Informazio gehiago:

- http://www.puc.cl/sw_educ/contam/fratmosf.htm
- <http://usuarios.lycos.es/ambiental/atmosfer.html#Aerosoles>
- <http://www.jmarcano.com/recursos/contamin/catmosf.html>
- <http://www.conama.cl/rm/568/channel.html>
- http://icarito.tercera.cl/especiales/medio_ambiente/contaminacion/c_atmosferica.htm



Dena usnatzen

“Kaleei simaurraren kiratsa zerien; barruko patioei pixaren hatsa zerien; eskailera-zuloetan, zur ustelaren eta arratoi-gorotzen kiratsa zen nagusi; sukaldeetan, aza ustelaren eta ahari-koipearen kiratsa; leihorik gabeko geletan, hauts urdinuaren kiratsa...”

HORRELA HASTEN DA P. Süskind idazlearen *Urrina* izenburuko eleberria — irakurtzea gomendatzen dizuegu, bide batez—, XVIII. mendeko Paris hiria usainen lekukotasuna. Ikusi duzue, ez da oso atsegina, baina, dirudienez, garai hartan, garbitasuna ere ez zen, inola ere, behar bestekoa. Zalantzarik gabe, gauzak asko aldatu dira; hala ere, esan behar da

hirien berezitasuna ez dela usain gozoa, ezta urrundik ere.

Orrialde honetan proposatzen dizuegun jolasa usaimena lantzeko proba eta ibilaldia da aldi berean, eta leku bakoitzeko airearen usaina ikeritzeko eta zentzumenekin jolasteko aukera emango dizue (alditxo batez, itsua izatea zer den sentitzea, adibidez).

Itsuka ibiltzea: hiritik mendira

Orain, paseoa egingo duzue, taldeka; abiapuntua zuen hiria edo herria izango da, eta hirigunetik aldentuta dagoen lekuren batera joango zarete (ahal dela, mendira, basora edo hurbil dagoen parke batera). Binaka joango zarete, eta bietako bat, txandaka, begiak itxita joango da (joatean bata eta etortzean bestea, esaterako).

Begiak estalita ez dauzkana itsuaurreko eta inkestari izango da: noizean behin gelditu eta nolako usaina dagoen galdetuko dio begiak estalita dauzkan kideari eta koadernoan idatziko ditu beraren erantzunak. Honako geldialdi eta usain hauek proposatzen dizkizuegu (zerrenda nahi beste luzatu ahal duzue):



Hirian:

- Hurbildu martxan jarri berri den auto batera: usaindu ihes-hodiaren hatsa.
- Jatetxe baten sarreran: janari usaina (askoz zehatzago joka dezakezue;

adibidez, jatetxe txinatarraren atean geldituta, curryaren usain berezia hauteman).

- Liburu-dendan (satorrentzako proba): paperaren usainari antzemateko gai zarete?

- Arropa garbitu berria dagoen balkoi edo leihoren baten azpian: auzo batzuetan arropa balkoietan eskegitzea debekatuta dagoen arren, beste batzuetan,

oraindik ere suma daiteke izaren usain freskoa.

Mendian edo parkean:


- Belar hezearen usain sarkorra.
- Belar moztu berriaren usain berezia.

- Udaberria heldu bada edo heltzear badago: loreen usaina.

- Zuhaitz bakoitzaren (eukalipto, pinu, ezki eta abarren) hostoen usainak bereizteko gai izango zinatekete?

Eutsi goiari eta eragin guruin pituitarioei! Ea baten bat Jean-Baptiste Grenouille, *Urruina* eleberriko protagonistaren usaimen harrigarria gainditzeko gai den.

Habitualmente, se distingue entre medio ambiente externo (la calle, el monte...) e interno (el hogar, el aula, la oficina...). En ambos casos debemos vigilar su calidad y evitar (o regular) las posibles fuentes de contaminación. En locales cerrados, el hábito de fumar es una causa de contaminación importante, no solamente para las personas que fuman, sino también para las que están a su lado.



Una máquina de fumar

Lo que queremos

- Visualizar el efecto del humo del tabaco sobre los pulmones y otros órganos del cuerpo.
- Relacionar la salud con la calidad del entorno.
- Tomar conciencia de la influencia de nuestros hábitos en el medio ambiente más próximo.

Necesitamos

- Una botella de plástico transparente (por ejemplo, de agua mineral).
- Una tetina de biberón.
- Algodón.
- Un recipiente ancho (por ejemplo, una palangana pequeña).
- Un cigarrillo.

Cómo se hace

1. Llenamos de agua la botella hasta donde indica el dibujo, aproximadamente.
2. Agrandamos el agujerito de la tetina de tal forma que encaje correctamente la boquilla del cigarro.



3. Introducimos el algodón en la tetina tal como muestra el gráfico.
4. Ajustamos la tetina a la boca de la botella, teniendo cuidado de no mojar el algodón. La tetina debe ajustarse perfectamente, por lo que, si es necesario, la sujetaremos con una gomilla o con cinta adhesiva.
5. Colocamos la botella sobre el recipiente, encendemos el cigarrillo y hacemos un agujerito en la parte baja de la botella.
6. La botella empieza a vaciarse lentamente, y esto hace que entre aire junto con el humo del cigarro.
7. En el modelo que hemos construido, la botella representa el cuerpo humano; la tetina, la boca; y el algodón, los pulmones. Si tapamos y destapamos periódicamente el orificio hecho en la botella, estaremos simulando el proceso que ocurre al fumar. Cada vez que destapamos, se produce una *calada* (aspiración de humo).

Al finalizar el simulacro, ¿cómo ha quedado el algodón? y ¿el interior de la botella?, ¿te sugiere algo?

Fuente:

MARTÍNEZ, Joseba. **Zure etxea, zure planeta: denon etorkizuna eraikitzeke proposamenak // Tu casa, tu planeta. Propuestas para un futuro común.** Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente. Vitoria-Gasteiz, 2000.

Biomímesis: un concepto clave para pensar la sustentabilidad



Jorge Riechmann

Profesor de filosofía moral.
Universidad de Barcelona.

Artikuluaren egilearen iritziz, biomimesiak, haurda, naturaren printzipio eta baliabide berberetan oinarritutako funtzionamendu produktiboak, izan behar du garapen jasangarria lortzeko etorkizuneko paradigma.

DESDE HACE DECENIOS, ecólogos como Ramón Margalef, H. T. Odum o Barry Commoner han propuesto que la economía humana debería imitar la *economía natural* de los ecosistemas. El concepto de biomímesis recoge esta estrategia, y a mi entender le corresponde un papel clave a la hora de dotar de contenido a la idea más formal de sustentabilidad.

El término biomímesis se usó, en los años noventa, dentro de disciplinas como la robótica, las ciencias de materiales, o la investigación cosmética, con un sentido más restringido que el que propongo yo aquí. Así, por ejemplo, cabe estudiar la locomoción de los insectos con vistas a desarrollar robots hexápodos que funcionen correctamente. La idea entre los investigadores de tales disciplinas ha sido más la imitación de organismos (o partes de estos) que la imitación de ecosistemas (sin embargo, éste último es el objetivo que a mi entender hemos de plantearnos primordialmente).

Allende esta biomimética ingenieril, podemos tomar el principio de biomímesis en un sentido más amplio: se tratará, entonces, de comprender los principios de funcionamiento de la vida en sus diferentes niveles (y en particular en el nivel ecosistémico) con el objetivo de reconstruir los sistemas humanos de manera que encajen armoniosamente en los sistemas naturales.

No es que exista ninguna agricultura, industria o economía *natural*: sino que, al tener que reintegrar la tecnosfera en la biosfera, estudiar cómo funciona la segunda nos orientará sobre el tipo de cambios que necesita la primera. La biomímesis es una estrategia de reinserción de los sistemas humanos dentro de los sistemas naturales.

La naturaleza, *la única empresa que nunca ha quebrado en unos 4.000 millones de años* según el biólogo Frederic Vester, nos proporciona el modelo para una economía sustentable y de alta productividad. Los ecosistemas naturales funcionan a base de ciclos cerrados de materia, movidos por la energía del sol: ésta es su característica fundamental, si los contemplamos con *mirada económica*.

Se trata de una *economía* cíclica, totalmente renovable y autorreproductiva, sin residuos, y cuya fuente de energía es inagotable en términos humanos: la energía solar en sus diversas manifestaciones (que incluye, por ejemplo, el viento y las olas). En esta economía cíclica natural cada residuo de un proceso se convierte en la materia prima de otro: los ciclos se cierran. Por el contrario, la economía

Principios básicos para la reconstrucción ecológica de la economía:

Vivir del sol

Cerrar los ciclos de materiales

No transportar los ma



industrial capitalista desarrollada en los últimos dos siglos, considerada en relación con los flujos de materia y de energía, es de naturaleza lineal: los recursos quedan desconectados de los residuos, los ciclos no se cierran.

Hay una objeción que surge de inmediato frente a las estrategias de biomímesis: ¿estamos de alguna forma reactualizando la viejísima tradición de derecho natural o éticas de cuño naturalista, que pretenden deducir valores del mundo natural o ciertos rasgos del mismo, incurriendo así en lo que los filósofos llaman *falacia naturalista*?

No es el caso. Se trata de imitar la naturaleza no porque sea una *maestra moral*, sino porque funciona. La biosfera es un *sistema de ecosistemas* perfectamente ajustado después de varios miles de millones de años de rodaje, autorreparación, reajuste darwiniano continuo y adaptación mutua (coevolución) de todas las piezas de todos los complejísimos mecanismos; no es estática, pero se mantiene en una estabilidad dinámica merced a sutiles mecanismos de retroalimentación negativa que los cibernéticos saben apreciar en su justo valor. No es que lo natural supere moral o metafísicamente a lo artificial: es que lleva más tiempo de rodaje.

A partir de la biomímesis, del funcionamiento de los ecosistemas, podemos sugerir cinco principios básicos para la reconstrucción ecológica de la economía (aunque no tengo aquí espacio para derivarlos de manera más rigurosa):

1. **Vivir del sol** como fuente energética
2. **Cerrar los ciclos** de materiales
3. **No transportar demasiado lejos** los materiales
4. **Evitar los xenobióticos** como COP (contaminantes orgánicos persistentes), OMG (organismos transgénicos)...
5. **Respetar la diversidad.**

Ciclos de materiales cerrados, sin contaminación y sin toxicidad, movidos por energía solar, adaptados a la diversidad local: ésta es la esencia de una economía sustentable. Cuando se trata de producción industrial, suele hablarse en este contexto de producción limpia.

A todos los niveles la biomímesis parece una buena

idea socioecológica y económico-ecológica:

- ecología industrial, remediando los ciclos cerrados de los materiales en la biosfera;
- agroecosistemas mucho más cercanos a los ecosistemas naturales que la actual agricultura industrial quimizada;
- biotecnología ambientalmente compatible, con biomoléculas artificiales donde sea preciso, pero guiándonos por el proceder de la misma naturaleza, etc.

Hay que indicar, por último, que la idea de biomímesis está estrechamente relacionada con el principio de precaución: para apartarnos de los *modelos* de la naturaleza necesitamos razones mucho más fuertes, y conocimiento mucho más fiable, que para seguirlos.

Esto implica sofrenar el optimismo tecnológico que ha caracterizado la historia de las sociedades industriales, y ser capaces de entender la historia como un aprendizaje al que hay que sacar partido. Sabemos que los privilegiados de este mundo hemos de reducir nuestro impacto ambiental en un factor aproximadamente de diez: es decir, reducir a la décima parte nuestro consumo de energía y materiales, liberando así espacio ambiental para que puedan vivir decentemente los seres humanos del Sur, y el resto de los seres vivos con los que compartimos la biosfera. Una parte de estas reducciones pueden lograrse mediante una *revolución de la ecoeficiencia*, pero no será suficiente: ha de completarse con una *revolución de la suficiencia*, y eso quiere decir modificar pautas de comportamiento, ideas y valores. Precisamos un *factor diez* ético-político, además del *factor diez* en ecoeficiencia que ya se formuló como objetivo en los años noventa del siglo XX. Aquí la educación ambiental puede desempeñar un papel clave.

Tal vez la educación deba reconvertirse biomiméticamente para que, en lugar de una educación ambiental que induzca sólo respeto a la *naturaleza natural* —ecosistemas entendidos como algo ajeno a la realidad cultural-humana—, se desarrolle una forma distinta de entender al ser humano en el planeta; y la educación sea una parte armónica de esa nueva filosofía, que simplemente no conciba la actitud destructiva en ninguna de las facetas de la vida.

demasiado lejos
teriales




Evitar los xenobióticos

Respetar la
diversidad

SARETIK BUELTAKA



Hegaldi zoriotsuak www.lanzadera.com/sopelana Horixe da Sopelako parapentzealen taldearen web gunea. Bertan, 1978an, Frantziako Alpeetako hiri txiki batean sortu zen kirol aeronautiko horren historia ezagutuko duzue. "Airetik" elkartearikiko lotura ez ezik, penintsulako eta munduko beste parapente eskola batzuekikoa ere aurkituko duzue web gune horretan.



Hegazti migratzaileak <http://personales.larural.es/diegogcu/default.htm> Ondo dakizuenez, ornitologia hegaztiak ikertzen dituen zientzia da. Web gune honetan, Diego García ornitologoa espezie interesgarri batzuk ezagutzeko parada ematen digu, hala nola basoilarra, zozoa, buztanikara zuria eta abar.



Izarretan zehar www.geocities.com/Athens/Delphi/1834/Astro.html Badakizue zer den meteorito-ja-sa? Eta izar iheskorra? Helbide horretan, Leonidas izar-ozarra nola eta noiz gertatzen den azaltzen da, bai eta meteorito-ekaitzen zenbait irudi ere.

Irakurgaiak

El legado de Luna

Julia "Butterfly" Hill. RBA. Bartzelona, 2001.

Liskar desorekatuak deskribatzeko, Dabid txikiaren eta Goliat erraldoiaren arteko borroka aipatu ohi da. Horren maila berean kokatu behar dugu Pacific Lumber enpresak suntsitu nahi zuen basoa defendatzeko, 60 metroko eta 100 urte baino gehiagoko sekuoia kaliforniarrera igo zen ekologista honek hasitako borroka:

Juliaren ustez, pertsona bakar batek ere defendatu ahal du planeta dolarren ikurrak itsututa dauden enpresa eskrupulu gabeen hatzaparretatik; eta pentsatu bezala jardun zuen. 23 urte zituela, antzinako zuhaitz horretara igo zen, eta 25 urte beteta zituela jaitzi zen bertatik. Bere helburua sekuoien suntsipena geraraztea zen. Imajina dezakezuenez, berea ez zen oporraldi ederra izan: hotz itzela jasan zuen, oinak izoztu egin zitzaizkion,



Erotzat hartu bazuten ere, Juliak hunkitu egin zuen gizartea izadiari buruzko bere mintzaldiaz.

SHAUN WALKER



Julia Hillek bi urte eman zituen Luna izeneko sekuoian igota, zuhaitza ebaki zezaten eragozteko. SHAUN WALKER

haize zakarren eragina nozitu zuen... Zerrak zuhaitz haietako bat ebakitzeko bakoitzean, neu ebakiko baininduten sentitzen nintzen, dio Luna deituz sekuoian igota bizi izan zuen denboraldiaren

lekukotasuna eman digun gazte adoretsuak.

Bizipen horri buruzko beste zerbait jakin nahi baduzue, <http://mujer.tercera.cl/2002/02/23/julia2.htm> helbidean elkarriketa bat daukzue.

bideoklubean

Hegaztien bizi-iraupena

Nómadas del viento

Jacques Perrin aktore frantziarrak (orain, naturari buruzko dokumentalen zuzendaria da) lau urte eman zituen hegazti bidaiarien hegadaren atzetik, berrogeitik gora herrialdetan zehar. Proiektu handigura horren emaitza da *Nómadas del viento* dokumental bikaina (2001ean, muntaia onerentzako Frantziako César saria irabazi zuena); bertan, hegazti migratzaileak gailurrik garaienetan eta basamorturik idorrenetan zehar egiten duten bideari jarraitzeko aukera izango duzue, Artikotik Patagoniaraino, tartean India, Brasil, Kenya eta beste herrialde askotatik igaroz.

Dokumentalari buruzko orrialde ofiziala www.nomadasdelviento.com gunean ikus dezakezue, bai eta Bruno Coulais-ek konposatutako soinu-bandaren zatiak entzun ere.





Boladak Zornotzako Larrea ikastetxean antolatutako kometa tailerraren irudia. Iratik eta Janirek beraiek diseinatutako kometak erakusten dizkigute.



Kometak hegaldatzea ez ezik, polita da beroriek eraikitzea ere.

Haizearekin jolasean

Construye tus cometas

RITTER, Jean Philippe
Susaeta, 2001.

Kometak diseinatzeko eta hegaldatzeko artea oso aspaldikoa da. Liburu honi esker, zeuek nahi duzuen moduko kometak egin ditzakezue: triangeluarrak, biribilak, laranjak, gorriak... Liburu honetan, urratsez urrats azaltzen da kometak nola egin. Dauden mota ugarien artetik, bederatziti modelo aukeratu dira zehatz-mehatz azalduta aurkezteko.



29
AREA

IHITZA

Kometak airean

Egin duzue inoiz kometa-rik? Erraza ala zaila deritzozue? Tresna hegalar horiek altzarazi eta airean mantentzea, kirol dibertigarria ez ezik, arte konplexua ere bada. Hainbat motatako kometak daude: estatikoak, akrobatikoak... bai eta kolo-

re, forma eta tamaina guztietakoak ere.

Ekialdekoentzat, kometen maneia hainbat balio filosofikoz hornituriko artea eta kultura-adierazpena da.

Inoiz kirol horretan aritzeko gogoia izan baduzue, hementxe daukazue gure

erkidegoko kometazaleen taldeekin harremanetan jartzeko bidea. Ziurrenik, sarritan izan dugu motor-gidarien topaketen berri, edo euren autoak —piezak edo karrozeriako elementuak erantsiz edo kenduz— berriro diseinatzeko dituzten zaleen berri (*tuning* deritzen eta modan dagoen zaletasuna); baina, agian, kometen jaialdiak edo kometazaleen bilguneak ez dira hain ezagunak, nahiz eta zaletasun horrekin lotutako txapelketen, erakustaldien eta topaketen egutegia ere badagoen: urrian, adibidez, Nazioarteko Kometa Jaialdia —hiru egun dirauen jai handia— egiten da.

Hona hemen kometen arteaz gozatzen diren euskal elkarteak:



Kometa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta zailagoa da maneiatzea.

Puntu berdea

NEREA ELUSTONDO Legazpin jaio zen 1981ean. 13 urterekin Urretxuko bertso eskolan hasi zen. Gazte mailako sariketa dezentetan parte hartu du, eta hainbat txapelketa irabazi ditu: Xenpelar, Osinalde, edo Eskolarteko sariketak besteak beste. Gaur egun ingeniari teknikoaren ikasketak burutzen ari da.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Antzina zena ukazina eta garbia gainera ailegatzean teknologia (e)ta industri jardura neurri gabeki degradatu da airearen egoera; gaur egun arte gisan jarraitzen baldin badugu aurrera laster maskarak jantzita irten beharko dugu kalera.

Nahiz aiporak izan airea(re)n garbitasuna hiltzeko ohitura dugu gai kutsagarri mordoska erabiltzeko; hori dela (e)ta portatu ordez burugabeen antzeko egin dezagun ahal duguna kutsadura gutxitzeko norberak egin behar du zerbait denok ondo bizitzeko.

AIREZ

Hiru elkarteetako gazteenak ere (2002ko abenduan eratu zen eta) antolatzen ditu Euskadi osoko jendea erakartzen duten kontzentrazioak (horixe gertatu zen joan den martxoan, Zarautzeko hondartzan). Elkartearen web gunean, argazkiak, ekitaldien egutegia eta antzeko alderdi interesgarriak gain, Valentzia, Coruña, Cadiz eta beste hiri batzuetako taldeen helbideak ere aurkituko dituzue.

Egoitza: Lasarte-Oria.

www.airez-tk



BOLADA

Elkartea 2001eko maiatzaren 11n sortu zen. Gaur egun, hegaldariekin lotutako albiste guztien berri ematen duen web gunea dauka: jaialdiak, jardueren egutegia, kometa motak —marrakiz eta guzti— eta abar. Eta bazkide izan nahi baduzu, web gunean bertan aurkituko duzu horretarako formularioa.

Vicente Durañona, 2.

Portugalete.

www.bolada.net



LAU-HAIZETARA

Dauden hiru elkarteetarik beterranoena da. 1997ko irailean eratu zen, eta, ordutik hona, hainbat ekitaldi antolatu ditu: topaketak —normalean, hil bakoitzeko lehenengo igandean, Salburuako zelaian, Garaioako parkean edo Zabalganako parkean—, tailerrak —gizarte-etxeetan, ikastetxeetan, herrietako festetan...—, jaialdiak...

Zerkabarren kalea, 5. Gasteiz.

www.lau-haizetara.org




Usurbilgo Lanbide Eskola

Baliabideak Interneten



www.contenidos.com/ecologia/contaminacion-aire

Gune espezializatu honetan, atmosferako zirkulazio orokorrari eta horrekin lotutako ingurumen-arazo nagusiei buruzko 41 erreferentzia aurki daitezke. Erreferentzia horietako bakoitzak informazio gehiago eskaintzen duen lotura batera darama. Gune honekin jarduteko mailarik egokienak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Heziketa Zikloak dira.



www.epa.gov/airnow/aqikids/spanish/index.html


Gaztelaniaz dagoen web gune hau Ingurumena Babesteko Agentzia Iparamerikarrarena da eta, bereziki, haurrei zuzentzen zaie. Hirian jasaten diren kutsadura-egoerei buruzko galde-erantzunez osatutako jokoak ditu, kasu bakoitzean zer egin ere argituz. Oso baliagarria da Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleek jolastuz ikas dezaten.

Usurbilgo Lanbide Eskola energia berriztagarriei buruzko irakaskuntza eskaintzen duen lehenengo da EAEn, sistema bakoitzaren instalakuntza-aren gainerakoa barne. Ikaskuntza prozesuaren baitan, arlo honetako teknologia berrien instalazioak ezagutzeko bisitaldiak antolatzen dira. Zentroan bertan, eguzki-energia termikoa eta fotovoltaikoa darabiltzan sistema mistoa dago, bai eta energia eolikoak eta geotermikoak baliatzen diren instalazioak ere; laster, biomasa eta energia hidroelektrikoa tratatzeko instalazioak erantsa espero dute. Eskola bisitatzeko, hitzordua alde aurretik zehaztu behar da, Patxi Bakerizo Eskolako zuzendariarekin edo Antonio Gil-ekin.

Arbitza Bidea, 29
20170 Usurbil
© 943 364 600

Parke eolikoetarako bisitaldiak

Eólicas de Euskadi enpresak antolatzen ditu horrelako instalazioak ezagutzeko ibilbideak eta, horiekin batera, ohiko energiari eta energia berriztagarriei buruzko hitzaldiak ere ematen ditu. Celia González de Heredia: 945 297 006. visitas@eolicaseuskadi.com



Usurbilgo Lanbide Eskolan instalaturiko fotovoltaiko panelak.

Sahats: Energia garbiak ezagutzeko gaikako parkea

Ekotopia GKEak abian jarri duen hezkuntza-ekipamendu hori Gallartan dago, meategi-gunean bertan, eta energia berriztagarrien hainbat instalaziotan zeharreko ibilbidea egiten du. Bisitaldiak antolatzeko, deitu 944 154 988 telefonora.



"Sahats" parkearen ikuspegia.

BIDEOAK

El Ozono: el cáncer del cielo

Ancora Audiovisual.
60 minutu.


Luze dihardu ozonoaren osakerari, planetaren osasunari ekar diezazkiokeen arriskuei eta estratosferako ozono geruzako zuloen arazo ezagunari buruz. Oso egokia da Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta Bigarren Hezkuntzan lantzeko. CEIDAn eskura daiteke.

Problemas de Conservación: Lluvia Ácida

ATUNZ-Natural History Production. 36 minutu.

Euri azidoaren jatorria eta, bai naturan, bai hirietan, fenomeno horrek uzten dituen aztarnarik ikusgarri eta garrantzitsuenak azaltzen ditu. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta Bigarren Hezkuntzan lantzeko egokia. CEIDAn eskura daiteke.

Material didaktikoak



Kutsadura Ingurugiro Hezkuntzarako Materialak

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, 1996.

Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetako ikasleengan pentsatuz taxutu da. Ikastetxe guztietan aurki daiteke, CEIDAK berak argitaratu eta banatu du eta. Lehen ziklokoentzako unitatea negutegi-efektuari buruzkoa da, eta bigarren ziklokoentzako gaia, euri azidoa. Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da, eta oso lan-fitxa erabilgarriak biltzen ditu.

Exploremos el tiempo


SUZUKI, David eta HEHNER, Barbara. Labor Bolsillo Juvenil. Bartzelona, 1989.

Poltsikoko-eskuliburu honetan, adibideak erabiliz eta modu errazean azaltzen da fenomeno atmosferikoak neurtzeko aparatu batzuen funtzionamendua. Urratsez urrats erakusten du ikasgelan nola eraiki aparatu horietako batzuk —euri-neurgailua edo barometroa, adibidez—, lortzen errazak diren materialak erabiliz. Oso egokia da Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera erabiltzeko.

Airea Ingurugiro Hezkuntzarako Oinarrizko Modulua. Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

Arabako Foru Aldundia. Gasteiz, 1995.

Material honek hainbat ikuspuntutatik lantzen du aireari buruzko gai orokorra, kutsadurari ere erreparatuz. Adibidez: zein jolas-jarduerak duten airearekin zerikusia, edo zein animalia bizi diren berari guztiz loturik. Materiala argitaratzeko hautatutako taxuak erraztu egiten du ikasgelan bere horretan erabiltzea.



El viento "El gran Señor invisible"

BLASCO, Amparo eta GARCÍA VEGA, José M^a.

IRIS bilduma. Meteorología Institutu Nazionala. Garraio, Turismo eta Komunikazio Ministerioa.

Kontakizun laburren bilduma da, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko umeentzako egokia. Fenomeno atmosferiko batzuk azaltzen ditu, marrazki esanguratsuen laguntzaz deskribatuz. Bai irakurmena lantzeko, bai ikus-entzunezko baliabideak sortzeko erabili ahal da. CEIDAn eskura daitezke.

La atmósfera "La piel del Mundo"

ALDIZKARIAK

Elhuyar

172 zk. 2002ko urtarrila, Klimaren bilakaera.

175 zk. 2002ko apirila, Tropikoko bihurriak: El Niño eta La Niña.

Bere artikuluetan, meteorologiarekin lotutako alderdiak aztertzen dira, *El Niño* eta *La Niña*, eta *Klimaren bilakaera*, esaterako. Aldizkariaren izaera dela eta, oso artikulua espezializatuak dira, baina euren gaineko testu-iruzkinak egiteko erabili daitezke. Beraz, egokiak dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Heziketa Zikloetan lantzeko.

Aldizkari hori www.zientzia.net web gunean kontsulta daiteke.



Eguzki energia fotovoltaiko sistemak jartzeko laguntzak emango dizkiete ikastetxeei

Ayudas para instalar energía solar fotovoltaica en centros de enseñanza

Ikastetxeen beharretara egokitutako laguntza mota ezberdinak daude:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Energiaren Euskal Erakundearen arteko lankidetzaz: sail honen menpe dauden Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztientzat.
- Udalen eta EEren arteko lankidetzaz: instalazioen jabetza Udalarena edo EErena izan daiteke, bi erakundeon artean adostutakoaren arabera.
- Honezaz gainera, EEEK beste dirulaguntza batzuk emango ditu: IDAE - Energia Aurrezpen eta Dibertsifikatze Institutuaren eta ICO - Kreditu Ofizialeko Institutuaren kreditu-linea bereziekin bat egin daitezke ekarpenok.

Informazio gehigarria CEIDAn eta EEEn (www.eve.es)

Existen varias modalidades de ayuda adaptadas a los centros de enseñanza:

- Convenio de colaboración entre el Ente Vasco de la Energía y el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco: para todos los centros de Enseñanza Secundaria dependientes de este Departamento.
- Convenio de colaboración entre Ayuntamientos y el EVE: las instalaciones pueden ser de propiedad municipal o del EVE, en función de cada acuerdo.
- Además, hay distintos tipos de ayudas del EVE, compatibles con líneas de crédito especiales del Instituto para la Diversificación y Ahorro Energético (IDAE) y el Instituto de Crédito Oficial (ICO).

Más información en el CEIDA y el EVE (www.eve.es).

Argazkia: Erreka Eskola (Oñati).

IHITZAren ale guztiak sarean: www.euskadi.net/ihitza Todos los números de IHITZA en la web

Gai hauek prestatzen gabiltza:

12 zk.: Partaidetza.

13 zk.: Paisaia.

14 zk.: Aisialdia.

Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.

Números en preparación:

Nº 12: La Participación.

Nº 13: El Paisaje.

Nº 14: El tiempo libre.

Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.

CEIDA **ingurumen heziketa zure eskura**

BILBAO

Ondarroa, 2
48004 Bilbao

- 944 11 49 99
- ceida-bilbao@ej-gv.es

URDAIBAI

Udetxea Jauregia
48300 Gernika-Lumo

- 946 25 71 25
- urdaibai@ej-gv.es

DONOSTIA

Basotxiki, 5
20015 Donostia

- 943 32 18 59
- ceida-donosti@ej-gv.es

LEGAZPI

Brinkola, z/g
20220 Legazpi

- 943 73 16 97
- ceida-legazpi@ej-gv.es

VITORIA-GASTEIZ

Baiona, 56-58
01010 Vitoria-Gasteiz

- 945 17 90 30
- ceida-vitoria@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN